

INFORMAZIO SISTEMAREN ETA INFORMATZAILEAREN BABESAREN INGURUKO POLITIKA

I. SARRERA

Cuadrilla de Ayala(e)k arauak betetzeko sistema ezarri du. Bertan, zenbait eskuliburu eta dokumentu biltzen dira: Jokabide kodea; Arrisku Penalen Prebentziorako Eskuliburua (atal orokorra); Arrisku Penalen Prebentziorako Eskuliburua (atal berezia); Arrisku Penalen Prebentzio Batzordearen Erregelamendua (hori arauak betetzeko kide anitzeko organoa da); eta abar.

Horrenbestez, Cuadrilla de Ayala(r)en administrazio kontseiluak onetsitako antolamendua dela bide, otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak (hemendik aurrera IBL) 11. artikuluan ezartzen duena aplikatu behar da analogiaz; horren arabera, sozietateak 5. artikuluan aipatzen den barruko informazio sistemari eta informatzailearen defentsari buruzko politika orokorra onetsi behar du, eta bermatu behar du horren printzipioak bere barruko entitate guztietan aplikatzen direla, sozietate, azpitalde edo taldearen gobernu korporatiboko edo gobernantzako sistemak ezartzen duen sozietate talde bakoitzaren autonomia eta independentzia eragotzi gabe, eta kontuan hartuta balitekeela aldaketak edo egokitzapenak egin behar izatea kasu bakoitzean aplikatzen den araudia betetzeko. Sistemaren arduraduna Cuadrilla de Ayala(r)en Arrisku Penalen Prebentzio Batzordea da.

Cuadrilla de Ayala(e)k konpromiso irmoa hartzen du ustelkeriaren aurkako borroka eta delituen eta arau hausteen prebentzioa, detekzioa eta erreakzioa bultzatzeko, indarrean dagoen araudia bete nahian. Horregatik, informazio sistemaren eta informatzailearen babesaren inguruko politika hau sinatzen du, otsailaren 20ko 2/2023 Legeak, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duenak, ezartzen duenarekin bat etorriz, helburu hauekin: gardentasun, etika eta ardura estandar gorenak betetzea, lortzea, errespetatzea eta bermatzea.

Halaber, politika honen bitartez entitatearen informazioaren kultura eta integritate azpiegiturak sendotu nahi dira eta informazioaren edo komunikazioaren kultura sustatu nahi da, interes publikoaren kontrako mehatxuak saihesteko eta antzemateko.

Cuadrilla de Ayala(e)k erantzukizuna eduki dezake, indarreko araudiaren arabera, sektore publikoko entitateei buruzko 13. artikuluan aipatzen direnetako bat baita; horregatik, salaketa kanala edo barruko informazio kanala kudeatzeko, izapidetzeko eta artatzeko politikak eta protokoloak prestatu ditu.

II. ZER DA INFORMAZIO KANALA?

Normalean, langileak ohartzen dira lehenik entitatearen barruan irregulartasunen bat gertatzen denean. Horregatik, barruko informazio kanala ezin egokiagoa izango da gertatzen diren ustezko legez aurkako egoera edo egoera irregularren berri emateko, errepresaliarik jasateko beldurrik gabe eta segurtasun eta berme neurri guztiak ezarrita.

Langileek idatziz zein ahoz (edo bietara) eman ahal izango dute Europar Batasunaren zuzenbideko arau haustea edo arau hauste penal edo administratibo astun edo oso astunak izan daitezkeen ekintzen edo ez-egiteen berri, bai eta Ogasun Publikoari edo Gizarte Segurantzari kalte ekonomikoa eragiten dioten ekintzen eta ez-egiteen berri ere. Nolanahi ere, barruko informazio sistema izango da bide lehenetsia

horretarako.

Cuadrilla de Ayala(r)en Arrisku Penalen Prebentzio Batzordea barruko informazio sistemaren arduraduna da. Horregatik, neurri egokiak ezarriko ditu informatzaileen konfidentzialtasuna bermatzeko. Gainera, ukitutako pertsonen eskubideak bermatuko ditu, batez ere errugabetasun presuntzioa.

Gogoan eduki behar da are izan daitekeen informazio kanalik onena ere ezin dela eraginkorra izan entitatearen barruan integritatearen eta arauak betetzearen aldeko kultura erabat ezarrita eta bizirik egon ezean.

III. ZER DA LEGEZ KONTRAKO JARDUERA?

Araudiaren arabera, legez kontrako jokabideak dira Europar Batasunaren zuzenbideko arau haustek (hau da, Espainiako Zigor Kodeko motetako batean sartzen direnak) izan daitezkeen ekintzak eta ez-egiteak, Europar Batasunaren finantza interesei kalte egiten dieten ekintzak eta ez-egiteak, eta arau hauste penal edo administratibo astun edo oso astunak izan daitezkeen ekintzak eta ez-egiteak.

Nolanahi ere, babespean egongo dira Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari galera ekonomikoa eragiten dioten zigor arloko arau hauste guztiak eta administrazio arloko arau hauste astun eta oso astun guztiak.

IV. JARDUN PRINTZPIOAK

Informazio sistemaren politika honen oinarrian honako jardun printzipio hauek daude:

- Gardentasun, etika eta ardura estandar gorenak lortu nahi izatea, inolako jarduketa irregularrik ez onartzea, eta ustelkeriaren kontra borrokatzea.
- Indarreko legeria betetzea entitatearen jardun eremuan eta barne araudian.
- Gai honen inguruko prestakuntzaren bidez langileak legez kontrako egintzen prebentzian eta detekzioan inplikatzeko bultzatzea, eta sustatzea barruko informazio kanala erabiltzea entitatearentzat arriskutsuak izan daitezkeen jokabideen eta legeriaren kontrako jarduketan berri emateko.
- Jarduketa horiek koordinatuko dituen figura sortzea: "Barruko informazio sistemaren arduraduna".
- Barruko informazio sistemaren arduradunaren lana erraztea; horretarako, bere lana ongi eta eraginkortasunarekin egiteko behar dituen baliabideak eta tresnak emango zaizkio, eta independentziarekin eta autonomiarekin jardungo du.
- Delituak izan daitezkeen gertaeren salaketan aurrean azkar eta ongi erreakzionatzea, ikerketan informatzailearen zein ukitutako pertsonen eskubideak errespetatzea, eta, bestelako neurriak ezartzean, ahaleginak egitea neurri gabe eta bereizkeriarekin ez aritzeko.

- Ustezko delituen berri ematea agintaritza eskudunei, eta erabateko prestutasuna eskaintzea haien ondorioz abian jartzen diren ikerketetan laguntzeko. Barruko informazio sistemaren arduradunak Fiskaltzara bidali beharko du berehala delitu zantzuak ageri dituen informazioa, edo Europako Fiskaltzara, gertatutakoak Europar Batasunaren finantza interesak ukitzen baditu.

v. EBALUAZIOA ETA BERRIKUSPENA. KONTROLA

Barruko informazio sistemaren arduradunak barneko informazio kanalaren eraginkortasuna ebaluatu eta berrikusi ahal du. Ahal horretaz baliaz, sistema nola ari den betetzen eta ezer hobetu behar den argitu ahal du. Barruko informazio sistemaren arduradunak barruko informazio kanala ongi ezartzen eta erabiltzen den kontrolatu eta gainbegiratu behar du.